

**EMAKUMEON ETXEA**

Indarkeria matxista, guztion ardura

Astigarragako Udaleko Gizarte Zerbitzuek, Berdintasun sailak eta Emakumeon Etxeak batera lan egiten dute

EKINTZA ERAGILEAK

Astigarragako Musika Eskolak
30 urte bete ditu aurten

5-6**UDALA**

Astigarragako Hiri Antolamenduko
Plan Orokorra berrikusteko prozesuak
aurrera darrai

9**IRITZIA**

Astigartartasuna:
Herri izaera.

11

2023an 16 indarkeria matxista kasu berri artatu zituzten Gizarte Zerbitzuek

Artatutako kasu gehienak bikotekideak eragindako indarkeriaren ondorio izan ziren. Indarkeria mota askotarikoa izan daiteke: psikologikoa, fisikoa, sexuala, ekonomikoa... askotan bat baino gehiago elkar gurutzatzen dira.



Los Servicios Sociales de Astigarraga atendieron 16 casos de violencia machista en 2023

De los 16 casos de violencia machista atendidos por los Servicios Sociales de Astigarraga, el 56% se debió a violencia ejercida por la actual pareja, mientras que en el resto de los casos la violencia fue ejercida por una expareja, familiares u hombres cercanos.

El 50% de las víctimas atendidas tenía entre 31 y 50 años y el 75% tenía al menos un menor a su cargo. Además, el año pasado hubo 9 órdenes de alejamiento en vigor en la localidad.

Dónde acudir en caso de violencia o agresión machista:

SERVICIOS SOCIALES:

943 335 232
ongintza@astigarraga.eus

EMAKUMEON ETXEA:

648 417 157
emakumeonetxea.astigarraga@gmail.com

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD:

943 505 701
638 206 586
berdintasuna@astigarraga.eus

En situaciones de emergencia:
Policía Municipal 699 487 587 / 112
Atención a víctimas 900 840 111

2023an 16 indarkeria matxistaren kasu berri artatu ziren Astigarragako Gizarte Zerbitzuetan. Horietatik % 56a egungo bikotekideak eragindako indarkeriaren ondorio izan zen, gainerakoetan, emakumeek indarkeria bikotekide-ohiarengandik edo senitarteko edo gertuko gizonezko kideengandik jaso zuten.

Indarkeria-mota anitzak jasan zituzten biktimek: indarkeria psikologikoa, fisikoa, sexuala edota ekonomikoa. Indarkeria egoeretan, arrunta da indarkeria-mota bat baino gehiago elkar gurutzatzea.

Artatutako biktimen % 50a 31 eta 50 urte bitartekoak izan ziren, nahiz eta 51-64 urte bitartekoak eta 30 urte-tik beherakoak ere egon. Biktimen % 75ak adin txikiko seme-alabaren bat zuen gutxienez, eta seme-alaba horrekin edo horiekin bizi ziren. Indarkeria matxisten kasuez gain, iaz 9 urruntze-agindu izan ziren indarrean herrian.

NORA JO INDARKERIA EDO ERASO MATXISTA KASUETAN?

Datuek erakusten dute gehienetan indarkeria gertuko gizonengandik jasotzen dutela emakumeek. Sarritan, indarkeria egoera batean murgilduta daudenak ez dira gai izaten indarkeria hori identifikatzeko zurrumbilo batean egon daitezkeelako.

Susmoak edo zalantzak dituztenek, gaiari buruz norbaitekin hitz egin edo euren egoera konpartitu nahi dutenek Udaleko honako zerbitzuekin jar daitezke harremanetan:

GIZARTE ZERBITZUAK:

943 335 232
ongintza@astigarraga.eus

EMAKUMEON ETXEA:

648 417 157
emakumeonetxea.astigarraga@gmail.com


BERDINTASUN SAILA:

943 505 701
638 206 586
berdintasuna@astigarraga.eus

Larrialdi egoeretan, deitu Udaltzaingoiari (699 487 587) edo 24 orduz zerbitzua eskaintzen duten telefonoetara: 112 zenbakira edo 900 840 111 (Eusko Jaurlaritzak indarkeria matxista kasuetarako duen zenbakira).

“Denon ardura da indarkeria matxistari aurre egitea”

Astigarragako 2023ko Indarkeria matxistaren datuak aztertu ondoren, Astigarragako Udaleko Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetza saileko Izaro Aizpuruarekin hitz egin dugu:



DATUEN ANALISIA

Datuek argi adierazten dute Astigarragan ez gaudela isolatuta eta beste edozein herritan bezala, gurean ere indarkeria matxista badagoela. Herritarrengan gogoeta eragiteko baliatu nahi genituzke, bakoitzak hausnartzeko indarkeria sistema edo engranaje hori mantentzen eta lubrikatzen zenbateraino laguntzen edo ekarpenik egiten ote duen. Denon ardura delako indarkeriari aurre egitea.

Indarkeria hori eragiten duena aurkitzeko ez daukagu urrutira joan beharrik; gure bikotekidea, bikotekide-ohia, bizilaguna, lankidea, kuadrillakoa, ezaguna edo senidea izan daiteke. Azken finean gertuko gizonezkoei buruz dihardugu. Indarkeria gertu dugula ohartzea eta kontzientzia hartzea ezinbestekoa da.

Kasu berrien % 56a egungo bikotekideak eragindako indarkeria izan zen. Horregatik, bikote-harremanei erreparatzea ezinbestekoa da: Nola aukeratzen ditut? Nola harremantzen naiz? Sufrimendua eragiten dit? Argi al ditut marra gorriak?

Biktimen % 75ak adin txikiko seme-alabaren bat duela gutxienez ikusi dugu, eta seme-alaba horrekin edo horiekin bizi dela. Haur eta nerabeek txiki-txikitatik ikusten, bizitzen eta pairatzen dute indarkeria eta sarritan

zenbait jokabide normaltzat hartzen dituzte. Indarkeria bikarioa ere egon daiteke seme-alaben aurka egindakoa, emakumeari min emateko helburuarekin.

lazko datuetan Gizarte Zerbitzuetatik artatutako kasu berriak jaso dira, baina aipatu beharra dago, kasu berriez gain, jarraipeneko kasuak ere artatzen dituztela Gizarte Zerbitzuetan. Datuek, ordea, ez dute errealitatea bere osotasunean erakusten, izan ere gutxiengoak jotzen du oraindik Gizarte Zerbitzuetara, Udaltzaingora edo Ertzaintzara. Beraz, errealitatearen argazki oso mugatua dira. Argazki horretatik kanpo geratu dira herrian gertatzen diren baina bistaraten ez diren indarkeria-egoera ugari eskolan, lanean, aisialdian, alor digitalean, parrandan... Itzalean geratu dira baita ere indarkeria jasaten duten hainbat kolektibo. Esate baterako, adinari erreparatuz gero, Gizarte Zerbitzuetatik artatutako emakume guztiak 65 urtetik beherakoak dira. Horrek ez du esan nahi 65 urtetik gorako emakume astigartarrek indarkeriarik jasaten ez dutenik. 65 urtetik gorako emakumeen artean aniztasun handia dagoen arren, genero-rolen eta emakumeenganako indarkeriaren naturalizazioan eta ikusezintasunean sozializatutako emakumeak dira; indarkeria ibilbide luzeak dituztenak eta konplexuak.

Izaro Aizpuru
(Berdintasun teknikaria)



Lorena Lopez (Gizarte Zerbitzuetako arduraduna); Belen Olaziregi (Emakumeon etxea); Tere Muñoz (Emakumeon Etxea); Elena López-Maya (Emakumeon Etxea); Izaro Aizpuru (Berdintasun teknikaria).



UDALAREN HAINBAT ERRONKA

Indarkeriaren lanketa egitean hainbat alor hartu behar ditugu aintzat:

Datuen bilketa eta ustiaketa: Azken urteetan Udalean artatu ditugun indarkeria matxista kasuei buruzko datuak bildu izan dira baina bilketa egiterakoan irizpide aldaketak egon direnez, datu horien sendotasuna edo irimotasuna ezin dugu bermatu eta ez dira konparagarriak. Aurtengo urtea abiapuntua izango litzateke eta urtez urte datuak herritarren eskura jarriko ditugu; datozen urteetan bilakaera ikusteko eta ondorioak ateratzeko aukera emango digu horrek.

Sentsibilizazioa eta prebentzioa: Hainbat kolektibori zuzendutako ekintzak egiten dira. Haur eta nerabeen kasuan Astigarragako Herri Eskolan eta Arantzazuko Ama institutuan ikasleentzat heziketa-saioak antolatzen ditugu errespetuzko bizikidetzara eta harreman afektibo sexual osasuntsuak sustatzeko asmoz. Horrez gain, Gaztelekuan urte osoan zehar harreman osasuntsuak lantzeko hainbat ekintza egiten dituzte.

Emakumeei ahalduntze prozesu batean murgiltzeko aukera ematen zaie Emakumeon Etxeko ikastaro, tailer, hitzaldi eta bestelako ekintzen bidez. Ahalduntze horrek emakumeen osasun fisiko eta emozionalean, besteekiko harremanetzeko eran eta norbere buruarekiko harremanean eraldaketa ekar dezake.

Orain arte helduen kasuan, gizonetakoak ez dira berariaz landu, baina

lanketak eta sentsibilizazio-saioak egitea aurreikusten da beraien inplikazioa ezinbestekoa delako indarkeria matxista desagertzeko. Bada garaia gizonek ardura hartzeko eta eraikitako gizontasunari buruz hausnartzeko. Eredu hori eraldatzea da erronka, horretarako emakumeekin dituzten harremanak eta euren artean dituztenak aldatu beharko dituzte.

Bestalde, jaietan eta Txotx denboraldian berariazko kanpaina bat egiten da eta herritarren eskura hainbat baliabide jarri dira (informazio puntua edo karpa morea, arreta telefonikoa...). Aurtengo Santio Jaietarako baliabideak prestatzen dihardugu une honetan eta jaien aurretik horien komunikazioa egingo dugu.

Arreta ematea eta koordinazioa: Biktimei ahalik eta arreta egokiena emateko parte hartzen duten agenteen arteko koordinazio egokia beharrezkoa da. Orain arte, udal barruko sailen (Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Berdintasun) arteko koordinazioa bermatzeko, indarkeria kasuetan aktibatzen den protokoloa daukagu. Erakunde arteko protokolo bat lantzea aurreikusten dugu udal sailez gain, gutxienez, Ertzaintza eta Osakidetza barne hartuko dituen.

Erreparazioa eta aitortza: Indarkeria matxista kasuen aurrean Astigarragako Udalaren erantzun publikoa aktibatzea herriko talde feminista eta emakume taldeekin elkarlanean eta biktimari babesa eta erreparazioa eskaintzea.

“Combatir la violencia machista es responsabilidad de todos y todas”

Izaro Aizpurua, del departamento de Igualdad, Convivencia y Participación del Ayuntamiento de Astigarraga analiza los datos de violencia machista de 2023.

“Los datos indican claramente que Astigarraga no es una excepción y como en cualquier otro pueblo, en el nuestro también hay violencia machista”.

“El 56% de los nuevos casos fueron violencia ejercida por la actual pareja. Por eso es imprescindible fijarse en las relaciones: ¿Cómo las elijo?, ¿Cómo me relaciono?, ¿Me causa sufrimiento?, ¿Tengo claras las líneas rojas?”.

“Los datos no reflejan la realidad en su conjunto, ya que todavía es una minoría la que acude a los Servicios Sociales, a la Policía Local o a la Ertzaintza. Fuera de esta fotografía quedan numerosas situaciones de violencia que se producen en el pueblo pero que no se visibilizan (en la escuela, el trabajo, el ocio, el ámbito digital, de fiesta...) y diversos colectivos que la sufren, pero que no denuncian”.

“Durante las fiestas y la temporada de Txotx realiza una campaña específica y también se ponen a disposición de la ciudadanía diferentes recursos (punto de información o carpa morada, atención telefónica...). En estos momentos estamos preparando los recursos para las Fiestas de Santiago de este año y pronto los comunicaremos”.

“Ya es hora de que los hombres se responsabilicen y reflexionen sobre su masculinidad. El reto está en que transformen el modelo de masculinidad, y para ello tendrán que cambiar las relaciones que tienen con las mujeres y las que tienen entre ellos”.

“Es necesaria una coordinación adecuada entre los agentes que intervienen en la atención a las víctimas. Por ello, se prevé la elaboración de un protocolo interinstitucional que, además de los departamentos municipales, incluya, al menos, a la Ertzaintza y a Osakidetza”.

“Cada persona debe reflexionar sobre su contribución al mantenimiento de este sistema de violencia. Porque combatir la violencia machista es responsabilidad de todos y todas”.

Emakumeon Etxea

Emakumeon Etxeak bere egunerokotasunean etengabe aritzen da indarkeria matxistaren aurka. Udalaren eta Emakumeon Etxeko Elkartearen artean kudeatzen den proiektua da Emakumeon Etxea. 2021ean ireki zituen ateak Kale Nagusiko 23. zenbakian.

Doako laguntza juridikoa eskaintzeaz gain, behar duten emakume guztiei akonpainamendu eta lehen harrera egiten dioten pertsonak badira Emakumeon Etxean. Lehen entzutearen ondoren, biktimaren beharrak balioesten dira, eta horietan oinarrituta zehazten dira beharrezko baliabide instituzionalak. Biktimak diren emakumeak prozesuan bakarrik senti ez daitezen, laguntza-langileak daude baliabide instituzionaletara laguntzeko edo hauek ezagutzeko, baita horiekin bitartekari lanak egiteko ere. Ibilbidea aktibatu ondoren, jarraipen telefoniko zein presentziala egiten zaio emakumeari, prozesua ezagutzeko eta jarraipena egiteko.

Duela gutxi, bakarrik sentitzen diren edo egoera zaurgarrian dauden emakumeentzako harrera-talde bat sortu da. Astigarragako emakumeen arteko topagune bat sortzeko helburua du eta sareak ehuntzeko eta zaurgarriak diren emakumeak emozionalki indartzeko balioko du.

NOLA ANTZEMAN EMAKUME BAT INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DELA?

Bizi garen gizartea patriarkala denez eta bertan indarkeria matxista egiturazkoa denez, edozein emakume indarkeria matxistaren biktima izan daiteke. Hala ere, zapalkundea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta arrisku handiagoa dago indarkeria matxista jasateko. Funtsezko elementu batzuk independentzia ekonomiko eta emozional eza, laguntza edo sare afektiborik ez izatea, tokiko hizkuntza edo errealitate kulturalak ez ezagutzea, arrazakeria... izan daitezke.

INDARKERIA MATXISTA, INDARKERIA ESTRUKTURALA

Indarkeria matxistari aurre egiteko, mekanismo eta tresna integralak behar dira eta begirada feminista hezkuntzan, osasungintza, epaitegietan, kirolean, elikaduran, aisialdian, harremanetan eta espazio guztietan txertatu beharra dago.

Emakumeon Etxeak antolatzen dituen ikastaro eta tailerren helburuetako bat emakumeen arteko sarea sortzea da, sare hori oinarritzeko baliabidea delako bizitza duinak izateko eta indarkeria matxistaren prebentziorako. "Indarkeriari aurre egiteko, indarkeria sufritzen ari garela ulertu behar dugu lehenik. Eta kasu askotan, hau ez da erraza izaten. Aholkularitza juridikoari esker, indarkeria matxista kasuak detektatzea errazagoa da eta baita hauei aurre egitea ere. Biktima direnei haien egoera zein den ulertzen eta honi aurre egiteko erremintak jasotzen laguntzen die" esaten dute Emakumeon Etxetik.



ANTOLATUTAKO HAINBAT JARDUERA:

- Egoera zaurgarrian daudenei laguntzeko sarea. Etxebizitza falta, bakardadea, etab. landuz.
- Ezkontzearen edo banantzearen ondorio juridikoak ezagutzeko hitzaldia.
- Autozaintza integral feminista ikastaroa.
- Norbere finantzak ordenatzeko tailerra, ahalduzko ekonomikoa lortzeko.
- Amatasuna eta indarkeria ikusezina tailerra.
- 'Hau ez da normala, tratatu txarrez jabetzea' Kafe tertulia.
- Zineforuma.
- Emagin elkartearekin autodefentsa feminista tailerra.
- Maitena Monroy-ren "Autodefensa feminista: más allá de aprender a decir no" liburuaren aurkezpena eta so-lasaldia.
- Hilketak matxistak salatzen elkarretaratzeak herrian.

Emakumeon Etxea

Además de contar con apoyo jurídico gratuito para todas las mujeres que lo necesiten, Emakumeon Etxea cuenta con personas que realizan el acompañamiento inicial, la primera acogida a la víctima y ayuda para acudir o conocer los distintos recursos institucionales.

De forma reciente se ha creado un grupo de acogida para mujeres que se sienten solas o están en situación de vulnerabilidad, que tiene como objetivo ser un lugar preventivo ante posibles situaciones de violencia o de malestar emocional y tejer redes para fortalecer emocionalmente a las mujeres vulnerables.

El hecho de que el patriarcado y la violencia machista sean estructurales en la sociedad que habitamos, hace que cualquier mujer independientemente de sus opresiones y privilegios pueda ser víctima de violencia machista. Es por esto por lo que es necesario integrar mecanismos e instrumentos que permitan incorporar una mirada feminista en ámbitos como la educación, la sanidad, los juzgados, el deporte, la alimentación, el ocio, las relaciones y resto de espacios. "Para hacer frente a la violencia, lo primero que tenemos que hacer es entender que la estamos sufriendo", dicen desde Emakumeon Etxea.

1 Arrobotxulo kaleko urbanizazio-lanen hasiera

Arrobotxulo kaleko sarreran urbanizazio-lanak abian dira eta uztailean amaitzea aurreikusten da. Helburua da oinezkoentzako gune seguruagoa eta atsegina sortzea, irisgarritasuna eta oinezkoen bizikidetzaren hobetuz.

Obrak trafikoa murriztean eta zintarriak kentzean oinarritzen dira, oinezkoen joan-etorriak errazteko. Hondatutako zoladura konponduko da, eta oinezkoentzako beste irteera bat gehituko zaio tximiniaren atzeko aparkalekuari. Hobekuntza horien helburua trafikoa moteltzea eta segurtasuna handitzea da. Construcciones Gaztañaga S.L.k egindako lanek 237.548,77 euroko kostua izango dute (BEZik gabe).

2 El Ayuntamiento de Astigarraga impulsa proyectos estratégicos de movilidad

El Ayuntamiento de Astigarraga está desarrollando dos proyectos estratégicos para mejorar la movilidad en la localidad. En colaboración con el Ayuntamiento de Donostia, se está estudiando implementar el sistema de bicicletas de alquiler dBizi, complementario al de Donostia. Este proyecto, iniciado en el mandato anterior, avanza con un protocolo aprobado en febrero de 2024 que establece un año para su estudio.

Paralelamente, el Ayuntamiento trabaja con la Diputación Foral para establecer una línea de autobús directa a hospitales y universidades, mejorando el acceso y eliminando la necesidad de transbordos y uso de vehículos particulares. El 23 de mayo, el alcalde y el concejal de movilidad se reunieron con el departamento de movilidad de la Diputación Foral para avanzar en esta iniciativa.

Estos proyectos buscan facilitar la movilidad sostenible y mejorar el acceso a servicios básicos para las personas residentes de Astigarraga.



3 Astigarragako Herri Eskolako Ekoordezkariak etxean energia aurrezteko gomendioak jaso dituzte

Astigarragako Herri Eskolako ekoordezkariak ingurumenaren kontzientziarioan eta helburuen jarraipenean lanean aritu dira azken bi urteotan. Joan den urteko energia-egoeraren diagnostikoa egin ondoren, gomendioak jaso dituzte energia aurrezteko eta eskolan zein etxean arduraz aritzeko. Gomendioen artean daude:

- Dutzak 5 minutura mugatzea eta ur beroaren erabilera gutxitzea.
- Argi naturala aprobetxatzea eta argia beharrik gabe ez piztea.
- Leihoak itxita edukitzea berogailua piztuta dagoenean eta berogailua 19ºtara doitzea.
- Aparatu elektrikoak erabat deskonektatzea, erabiltzen ez direnean.
- Hozkailua ireki aurretik zer behar duzun pentsatzea, energia-galerak saihesteko.
- Igogailua lau solairu baino gehiago igo behar direnerako bakarrik erabiltzea eta gainerako kasuetan eskailek aukeratzea.
- Pertsiana elektrikoak eskuzkoekin ordeztzea.
- Autoaren erabilera murriztea, oinez ibiltzea edo bizikleta erabiltzea distantzia laburretarako, eta garraio publikoa edo autoa partekatzea distantzia luzeetarako.

Gomendio horien helburua da energia aurrezte eta ohitura jasangarriak sustatzea Astigarragako herritarren artean.





4 240.000 euros en tus manos: la propuesta "Construcción de un mercado cubierto" se lleva la mayoría de votos

La propuesta "Construcción de un mercado cubierto" ha ganado la votación del proceso "240.000 euros en tu mano" con 230 votos. Así, se destinarán 240.000 euros a este proyecto para apoyar la venta directa de productos de los y las baserritarras.

La segunda propuesta más votada fue "Creación de una cocina municipal comunitaria" con 226 votos, seguida de "Puesta en marcha del servicio de ludoteca" con 213 votos.

El proceso de presupuestos participativos "Zure Esku" comenzó en marzo con 237 propuestas. Tras analizar su viabilidad, 24 pasaron a la fase de votación. Del 23 de mayo al 2 de junio, 724 astigarras emitieron su voto, siendo el 8,5% de los votos para la propuesta ganadora.

5 Astigarragak delinkuentzia tasarik baxuenetako bat erregistratu du 2023an

Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren salaketetan oinarritutako 2023ko delinkuentzia-memoriak nabarmentzen du Astigarragak delinkuentzia-tasarik baxuenetako bat duela, 1.000 biztanleko 28,44 deliturekin, Euskadirekin (47,48) eta Gipuzkoarekin (44,07) alderatuta. Indarkeriazko eta larderiazko delituak % 100 jaitsi dira, enpresetako lapurretak % 33,33 eta kolektiboen aurkako delituak % 20. Hala ere, genero-indarkeriako eta etxeo indarkeriako delituak % 125 igo dira 2022. urtearekin alderatuta.

Udaltzaingoak, halaber, 10 akta egin zituen udal-ordenantzen bidez (4 txakurrekin esku-hartzeagatik, 4 tabernetan esku-hartzeagatik eta 2 beste batzuegatik), 403 salaketa trafikoagatik, 12 atestatu istripuegatik eta 18 laguntza adiskidetasunezko istripu-parteentzat. Ziberdelituek gora egin duten arren, delinkuentzia-tasak baxuak dira lurralde guztietan, Astigarragan barne.

Astigarraga registra una de las tasas de delincuencia más bajas en 2023

La memoria de delincuencia de 2023, basada en denuncias de Udaltzaingoa y Ertzaintza, destaca que Astigarraga presenta una de las tasas de delincuencia más bajas, con 28,44 delitos por 1.000 habitantes, comparada con Euskadi (47,48) y Gipuzkoa (44,07). Los delitos con violencia e intimidación han descendido un 100%, los robos en empresas un 33,33% y los delitos contra colectivos un 20%. Sin embargo, los delitos de violencia de género y doméstica han aumentado un 125% respecto a 2022.

La Udaltzaingoa también reportó 10 actas por Ordenanzas Municipales (4 por intervenciones con perros, 4 en bares y 2 por otros), 403 denuncias por tráfico, 12 atestados por accidentes y 18 ayudas para partes amistosas de accidentes. Aunque los ciberdelitos han aumentado, las tasas de delincuencia se mantienen bajas en todos los territorios, incluyendo Astigarraga.

	2022	2023	X 1.000 BIZTANLE DELIKUENTZIA TASA			
			TASA DELICTIVA X CADA 1.000 HABITANTES			
EUSKADI	133.522	138.824	2022	44,88	2023	47,48
GIPUZKOA	38.965	41.505	2022	38,81	2023	44,07
ASTIGARRAGA	218	292	2022	24,27	2023	28,44

ARAU-HAUSTE PENAL EZAGUNAK / INFRACCIONES PENALES CONOCIDAS	EUSKADI			GIPUZKOA			ASTIGARRAGA		
	2022	2023	%	2022	2023	%	2022	2023	%
ONDAREAREN AURKAKOA / CONTRA EL PATRIMONIO	82.681	78.688	-4,83	23.088	22.321	-3,32	93	137	47,31
ZIBERDELITUAK / CIBERDELITOS	20.147	28.430	41,11	5.847	9.015	54,18	39	55	41,03
PERTSONEN SEGURTASUN AURKAKOA / CONTRA LAS PERSONAS	12.741	13.597	6,72	3.666	3.838	4,69	16	30	87,50
SEGURTASUN KOLEKTIBOAREN AURKAKOA / CONTRA COLECTIVOS	6.189	5.645	-8,79	2.244	1.938	-13,64	20	16	-20,00
BESTE ARAU-HAUSTE PENAL BATZUK / Otros	11.764	12.464	5,95	4.120	4.393	6,63	50	54	8,00

ONDAREAREN AURKAKOA / CONTRA EL PATRIMONIO	2022	2023	%	2022	2023	%	2022	2023	%
Ebasteak / Hurtos	42.878	44.158	2,99	10.696	11.479	7,32	69	72	4,35
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta / Robo con fuerza en las cosas	15.638	13.184	-15,69	5.552	4.999	-9,96	7	21	200,00
Kalteak / Daños	12.419	12.040	-3,05	3.389	3.289	-2,95	10	15	50,00
Indarkeriak/larderia erabiliz egindako lapurreta / Robo con violencia e intimidación	3.511	3.489	-0,63	590	701	18,81	1	0	-100,00
lruzur presentzialak / Estafas	4.577	2.357	-48,50	1.803	718	-60,18	otros	25	
Ondarearen aurkako beste batzuk / Otros contra el patrimonio	3.658	3.460	-5,41	1.058	1.135	7,28	6	4	-33,33
GUZTIRA / TOTAL	82.681	78.688		23.088	22.321		93	137	47,31

Astigarragako Musika Eskolak 30 urte bete ditu aurten

Astigarragako Norberto Almandoz Musika Eskola 1994. urtean jarri zen martxan herritar talde baten ekimenez eta Udalaren laguntzarekin.



Aurten 30 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko Musika Eskolak ospakizun bat antolatu du ekainaren 15ean eta herriko jendea gerturatzen gonbidatu nahi ditu:

EGITARAUA: 12:00 Kalejira
13:00 Emanaldia
Kontxa Etxeberriako aterpean



HAZKUNDE NABARMENA

Lehenengo urteetan, 48 ikasle eta 4 irakasle zituen eta gaur egun 350 ikasle, 13 irakasle eta 19 musika talde daude: bi abesbatza talde, bi eskal talde, banda bat, folk talde bat, bi teklatu talde, gitarra talde bat eta hamar talde moderno.

Trikitixa eta gitarra eskaintzen hasi baziren ere, musika-tresnak eta ikasgai-aukerak ere nabarmen hazi dira.

Astigarragako biztanleriak izan duen hazkundera nabarmentzen dute, bereziki haurrena. "Urtez urte, haurren kopurua handitzen da. Taldeak gero eta handiagoak dira". Helduen kasuan ere, hazkundera nabaria da, gero eta gehiago apuntatzen baitira.

30 URTE HERRIARI DOINUA JARTZEN

Ospakizuna kalejira batekin hasiko da. Bertan parte hartzeko herriko elkarte eta erakundeak eta ikasle ohiak gonbidatuko dira. Ondoren, ekitaldi bat egingo da Erriberako Kulturguneako aretoan.



Hasieran zituzten helburuak berdinak izaten jarraitzen dute: ikasleek autonomia izatea musika taldeetan parte hartzeko eta aniztasuna bermatzea. Musika baino gehiago eskaintzen du Musika Eskolak, izan ere, "elkarrekin egoteko eta harremantzeko modu polit bat da".

ADIN GUZTIAK JOMUGAN

Astigarragako Musika Eskolaren berezitasunetako bat saioak 0 urtetik aurrera eskaintzen direla da. 0-3 urte bitartekoentzako tailer hauetan haurrek eta gurasoek parte hartzen dute. Helburuak musikaren bidez haurren eta gurasoen arteko harremanak indartzea, umearen garapen integrala musikaren bidez lantzea, hainbat gaitasun musikal garatzea eta gurasoei zenbait errekurtso ezagutzera ematea dira, besteak beste. Astean ordubeteko saioak izaten dira.

2022-2023 ikasturtetik hirugarren adinekoei zuzendutako musika ikastaroa ere martxan dago. Ikastaro honen helburu nagusia alderdi fisiko, kognitibo, sozioemotional eta espiritualak musikaren bidez indartzea da. Ez da musikaren inguruko ikasketa edo eza-



gutzarik behar, autozaintza garatzeko eta musikaz gozatzeko grina bakarrik.

Nola jarri harremanetan Musika Eskolarekin?

Astelehenetik ostegunera 16:00-19:00 eta ostiraletan 10:00-14:00 Musika Eskolara bertaratu, emaila bidaliz idazkaritza@name.eus helbidera, edo telefonoz deituz 943 33 73 40

La Escuela de Música de Astigarraga celebra su 30 aniversario

La Escuela de Música Norberto Almandoz de Astigarraga abrió sus puertas en 1994 por iniciativa de un grupo vecinal y con la colaboración del Ayuntamiento.

La Escuela que empezó con un alumnado de 48 personas y un profesorado de 4, cuenta a día de hoy con un alumnado de unas 350 personas, un profesorado de 13 y 19 grupos de música

Este año cumple 30 años y para celebrarlo, la Escuela de Música ha organizado un programa para el 15 de junio e invitan a todas las personas que quieran acercarse:

- 12:00 Kalejira
- 13:00 Actuación en Kontxa Etxeberria

Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesuak aurrera darrai

Aurrerapena maiatzetik uztailean egon zen jendaurrean. Herritarrek, enpresek eta elkarteek egindako 39 ekarpenak aztertu ondoren, helburu eta irizpideak zehaztu dira eta oniritzia eman die Osoko Bilkurak.

Plan Orokorren berrikuspena idazteko hurrengo irizpideak kontuan izan behar ditu idaztaldeak:

- Zerbitzu eta azpiegitura publikoen sare integrala eta duina osatzea.
- Etxebizitza duin, egoki eta eskuragarri eskubidea bermatzea, alokairu sozialeko politika sustatuz.
- Ahal den neurrian, biztanle kopuruari eustea.
- Garapenerako eredu ahalik eta trinkoena ezartzea, ahalik eta lurzoru natural gutxien okupatuz.
- "15 minutuko hiria" hirigintza-konzeptua gauzatzeko.
- Gizarte kohesioa eta ekitatea indartzea, zaurgarrienen egoera lehentsez eta plangintzan genero ikuspegi txertatuz.
- Garapen jasagarria ahalbidetzea.
- Oinezkoen eta bizikleten mugikortasun-azpiegitura eta -sare seguru, bideragarri, eroso eta erakargarria osatzea, hala nola, garraio publiko desberdinen intermodalitatea bilatuz.
- Landa ingurua eta ingurune naturala antolatu eta arautzea.
- Tokiko merkataritza babestea eta indartzea.
- Bizitegietan ohiko etxebizitzako erabilera lehentzea.
- Espazio eta eraikin publikoetan zein pribatuetan irisgarritasun unibertsiala bermatzea eta erraztea.
- Uholdeen aurkako herri-babesa areagotzea eta aldaketa klimatikoaren gainontzeko mehatxuei aurre egitea.
- Euskararen erabilera hauspotzea.
- Ondare kulturala eta paisaia babesteko zaintzea.
- Herritarren parte-hartzeko aukerak sustatzea.



Xede eta irizpide orokor hauek aintzat hartuta, hainbat zehaztapen gehitu dira eta eremu-eremu bete beharreko xede eta irizpide zehatzagoak definitu dira.

Aurreko Plan Orokorrekin 1.534 etxebizitza aurreikusi bazituzten, oraindik etxebizitza kopurua 400era mugatu da, eta horietatik, babes ofizialeko eta etxe tasatuaz gain, gutxienez %20 alokairu sozialeko etxebizitza publikoak izatea aurreikusi da. Berrikuspen honen helburu nagusietakoa udalak lurzoru eraikigarria lortzea da, lurzoru hauetan alokairu sozialera bideratuko diren etxebizitzak eraiki ahal izateko eta etxebizitzaren arazoa leuntzeko asmoekin.

Lurzoru eraikigarri publikoa lortzeaz gain, berrikuspenaren beste helburu nagusia ekipamendu-, azpiegitura- eta bidegorri-sareak herriaren eskari eta behar errealei erantzuteko egokitzea da.

Kirol ekipamenduek ere protagonismoa izango dute. Kiroldegiaren handitzeaz gain, pilotalekuak aurreikusi dira Oialumen eta Santiagomendiko auzoetan eta DBH institutuaren ondoan erabilera anitzetako aukera emango duen pilotaleku itxi eta estalia. Gainera, Zarkumendegiren alboan atletismo pista bat egokitu daitekeen aztertuko da berrikuspen prozesu honetan.

Herri barneko bidegorri-sarea ere aurreikusi da, batik bat, DBH instituturara iristeko bidegorri segurua izateko. Gainera, hiru aparkaleku publiko ere aurreikusi dira: bat Errekalden (dagoe-na handituz) eta besteak, Bidebitarten. Bat, herri sarreran, Portutxo parean eta besteak, anbulatorio berria kokatuko den eremuaren inguruan.

Orain arteko Plan Orokorren adreiluaren sektorearen nahiei erantzuten zien bitartean, oraindik, pertsonak, astigarrak eta haien beharrak jarri nahi izan dira erdigunean.

Irizpide eta xede hauekin guztiekin, idaztaldeak Plan Orokorren dokumentua idazteari ekin dio eta hauek guztiak gauzatzeko bideragarritasuna bermatzeko proposamena osatu beharko dute.

CONTINÚA EL PROCESO DE REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ASTIGARRAGA

El adelanto estuvo en exposición pública de mayo a julio. Tras analizar las 39 aportaciones realizadas por la ciudadanía, empresas y asociaciones, se han definido objetivos y criterios y el Pleno le ha dado el visto bueno al mismo.

Mientras el plan general hasta ahora respondía a los deseos del sector del ladrillo en esta ocasión, se ha querido poner en el centro las personas, a los y las astigarras y a sus necesidades.

Con todos estos criterios y objetivos, el equipo redactor procederá a redactar el documento del Plan General y deberán elaborar una propuesta para garantizar la viabilidad de su ejecución.

Astigarragak hondakinen gaikako bilketaren datu onei eusten die

Astigarragako udalerrriak ia % 76ko gaikako bilketa nabarmena izan du 2023an, 2 puntuko beherakada 2022ko % 78arekin alderatuta. Hala ere, datu hori esanguratsua da, azken urtean biztanleriak izan duen gorakada handia kontuan hartuta.



Astigarragak San Markos Mankomunitateko edukiontzi-sistema erabiltzen duten herri guztien artean gaikako bilketaren indizearik altuena du. Gainera aipagarria da biztanle bakoitzeko sortutako hondakinen kopuruak nabarmen egin duela behera: 2022an 530 kg/biztanle izatetik 2023an 475 kg/biztanle izatera igaro da.

Astigarragako hondakinen informaziorako bulegoak zeregin erabakigarria du bide honetan guztian. Bulegoak herritarrentzako aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen du, bio-hondakinen eta errefusen edukiontzian irekitzeko txartelak eskainiz, olio birziklatzeko potoak banatuz, eta industriaguneko hondakin bilketa-zerbitzuak kudeatuz. Hondakinen kudeaketari buruzko keza zein iradokizunak egiteko eta aholkularitza jasotzeko espazioa ere bada eta biohondakina kudeatzeko modu jasangarriagoak sustatzeko auzokoposta eta etxekonposta kudeatu eta sustatzen ditu ere. Bide honetan auzokoposten etxolak berritzen hasi dira zaharkituak ordezkatzeko, hondakin organikoaren kudeaketa iraunkorra are gehiago indartuz.

Lan eta emaitza hauei guztiei esker, 2023an, Astigarragak Europako Zero Zabor ziurtagiria jaso zuen, eta 5 izar posibleetatik 2 lortu zituen. Ziurtagiri honek, udalerrriak eta astigartarrek iraunkortasunarekin duten konpromisoaren adierazgarri garbia da.

Emaitzak emaitza, hondakin bulegoak hondakinak murrizten, berrerabiltzen eta birziklatzen jarraitu behar dela go-



gorarazten du: “hondakin onena sortzen ez dena da”. Horregatik guztiagatik hondakinen sorrera minimizatzeke eta bereizteke eta birziklatzeko praktikak hobetzen jarraitzea beharrezkoa dela nabarmentzen da hondakinen bulegotik.

Informazio gehiago nahi izanez gero, herritarrek hondakinen informazio bulegora jo dezakete, aurrez aurre edo posta elektronikoen bidez: hondakinak@astigarraga.eus

Astigarraga mantiene los buenos datos de recogida selectiva de residuos

En 2023, Astigarraga registró una recogida selectiva del 76%, aunque es un descenso de 2 puntos respecto al año anterior, ese 76% es más remarkable si cabe teniendo en cuenta el aumento poblacional. Este municipio lidera la recogida selectiva entre las localidades que emplean contenedores para la recogida de residuos, y ha reducido la generación de residuos per cápita de 530 kg en 2022 a 475 kg en 2023.

En cuanto a la oficina de información de residuos, ésta ofrece servicios y asesoramiento para una gestión mejor y más sostenible de los residuos. También se responsabiliza de la gestión y el buen funcionamiento de los puntos de autocompostaje y compostaje comunitario del municipio. Reseñar a este respecto, que se ha iniciado la renovación de los puntos de compostaje comunitario.

Muestra de todo este trabajo y esfuerzo comunitario entre Ayuntamiento y ciudadanía, Astigarraga recibió en 2023 el Certificado Europeo de Residuo Cero con 2 estrellas de 5 posibles, reafirmando el compromiso y esfuerzo de Astigarraga con la sostenibilidad. La oficina de residuos subraya la importancia y la necesidad de continuar con el compromiso de reducir, reutilizar y reciclar nuestros residuos: “el mejor residuo el que no se genera”.

Astigartartasuna: herri izaera

Astigartartasuna eta Astigarragaren izaera herrikoiak azken urteetan izan duten bilakaera ulertzeko, tokiko hiru politikariren iritziak bildu ditugu. Herriaren nortasunaren aldaketek, gaur egun Astigarragako izateak zer esan nahi duen eta astigartarren artean harrotasuna eta pertenezia zentzua nola agertzen diren azalduko digute.

Xabier Urdangarin

EHBildu

Zer da Astigarraga? Zein izaera du? Galdera nondik nora datoren badakigu.

Ikaragarri aldatu den herria da, kanpotik jende asko etorri da, auzo berriak, leku berriak, ohitura berriak... Ematen du dena aldatzen ari dela eta ez dakigula nora goazen. Noraezak kezka eta ezinegona pizten du. Baina, aldi berean, izan nahi dugun hori lantzeko aukera paregabea ematen digu.

Guk argi dugu: etorritakoei ongi etorri, besarkada bat eta gonbidapena gure ohiturak, auzoak, jaiak, mendiak, errekak, hizkuntza, hizkerak... ezagutzeko.

Herri zaharra da gurea. Historiaurreko aztarnak ere badira. Une esanguratsu asko izan ditugu historian zehar, Murgia-ko jaurretik bereizi zenekoa, Donostiatik bereizi zenekoa... Bere burua berriz sortu behar izan du gure herriak hainbatetan. Gaur berriz sortzen ari gara, urte gutxian biztanleria bikoiztu ondoren.

Astigartartasuna eta herri izaera berriz eraiki behar ditugu, garenetik, geuretik, kanpo-koarekin berrituz, konplexurik gabe eta konplexutasun handirik gabe.

Gure jomuga: elkarrekin bizi-itzeko eta elkar zaintzeko herria, euskalduna, aurrerakoa, inklusiboa, berdinzalea, aktiboa... Zerbait berria badator, hemen dago. Denok ari gara berritzen eta denon artean astigartartasuna berritzen ari gara, bakoitzaren astigartartasunetik.

Maria Otaegi

EAJ-PNV

Hoy en día ser de Astigarraga es pertenecer a un pueblo que combina identidad y progreso. Es compartir un sentimiento de orgullo por pertenecer a un pueblo que se ha ido haciendo a sí mismo poco a poco. Astigarraga tuvo alcalde del PNV antes de la guerra civil y la dictadura. A partir de 1943 fue anexionada a Donostia en contra de la voluntad de los vecinos y en 1979 el PNV decidió incluir en su programa electoral el deseo de volver a ser pueblo. La desanexión se materializó 8 años más tarde, el 30 de junio de 1987, con los votos a favor de todos salvo de la izquierda abertzale. Desde entonces, el pueblo de Astigarraga fue transformándose de barrio a pueblo y se fue dotando al pueblo, mientras era gobernado por el PNV, de una planificación con visión que ha ido proporcionando al ayuntamiento los ingresos que han hecho posible la Astigarraga de ahora; por ejemplo, entre otras cosas, con la construcción de la nueva casa de cultura en su momento o con lograr la estación de tren de cercanías que pronto será una realidad. Todo ello ha hecho que poco a poco se haya ido construyendo un pueblo, Astigarraga, del que estar orgullosos.

Es por todo esto, por lo que tenemos que seguir trabajando para mantener la identidad del pueblo, fomentar el progreso y seguir creando pueblo del que seguir sintiéndonos orgullosos. Para ello sería del todo necesario que se cumplieran esas promesas que no acaban de llegar: Polideportivos, DBH y ambulatorio que están tardando en llegar y desde luego son más que necesarios para que Astigarraga siga desarrollándose como debe y haciendo que estemos más orgullosos de ella si cabe.

Patxi Suarez

PSE-EE

Geure buruari galdetzen diogunean zer den Astigarraga, zein den gure herri izaera zein den, beste modu batean esanda Astigartartasuna, agian pentsatzen dugu Urumearen eta Santio Mendiaren artean kokatutako herri eder honetan, non sagarrak, sagardoak eta beste nekazaritza produktu batzuek, ekonomian ez ezik gure kulturaren ere oso paper garrantzitsua jokatzen dutela.

Hala ere, Astigarragan beste jarduerak batzuk garatzen dira, hala nola industria, eraikuntza, handizkako eta txikizkako merkataritza, besteak beste. Ekonomiaren harira ezin dugu ostalaritza ahaztu, gure sagarrarekin lotura handia duena; izan ere, sagardotegiek gero eta garrantzi handiagoa daukate, nahiz eta txotx denboraldia antolatzea hain justu gure bizilagunentzat erronka nagusietako bat izan.

Baina, esandakoaz gain, Astigarraga jarduera ekonomikoa baino askoz gehiago da; kontutan hartuz herri-tarrek 1987an, Donostiatik kanpo, udalerrri independentea izatea erabaki zutela, gaur oraindik esan dezakegu Astigarragak izaera propioa duela. Gainera ezin dugu herri-tartak gabe herri izaera definitu, Astigartartasuna Astigartarren datza.

Biztanleriak izan duen hazkundera oso handia izan da, eta ez da beharrezkoa herri-tarren izaera oso zabala eta askotarikoa dela aipatzea. Ondorioz, gure tradizioekin bateragarria izan arren, gure herri izaerak gure nortasunak herria bezala kulturaren eta hizkuntzaren aldetik plurala izan behar du.

Hazkundera eta aniztasuna aprobetxatu dezagun, herriari aberastasuna besterik ez dio ekarriko.

Ekainak 28

LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

LGTBIQ+ kolektiboa: Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual, Intersexual, Queer eta aurrekoetan kabidarik ez duten (+) pertsonak osatzen duten kolektiboa

Ekainak 7 ostirala

18:00 | Kultur Etxe Zaharreko aretoan

Esnatu naiz kabareta

Nerabeei zuzenduta eta Andoni Mutiloak eskutik, antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen ikuskizuna, gogoeta eragiteko helburuarekin: gure nortasuna eta gure bizimodua bat al datoz? Gure nahiek, beharrek eta ametsak zer leku dute gure egunerokoan? Gaztelekuak antolatuta.

Ekainak 19 asteazkena

18:00 | Emakumeon Etxean

80 egunean zineforuma; ondoren, solasaldia Ane Sanz de Galdeano sexologarekin

Urtea: 2010

Zuzendariak: Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga

Hizkuntza: euskaraz

Axun, 70 urteko emakumea, ospitalera joan da alabaren senar ohia zaintzera. Bere harridurarako, ondoko gaixoaren zaintzailea Maite da, nerabegaroko oso lagun ona, 50 urtean ikusi ez duena. Bien arteko kimikak oraindik ere badirau. Asko gozaten dute bata bestearekin, Axunek Maite lesbiana dela konturatu arte. Orduan, Axunek zalantzan jarriko ditu bere sentimenduak: zeri egin behar diot kasu? Buruari ala bihotzari?

Filmaren emanaldiaren ondoren solasaldia izango da ZiRRara, Astigarragako sexu eta bikote aholkularitza zerbitzuko sexologarekin.

Ekainak 21 ostirala

20:00 | Erriberan

Zinegoak

Film laburren emanaldia

Zinegoak Bilboko LGTBIQ+ 21. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiarekin bat eginez hainbat film labur eskainiko dira (www.zinegoak.com).

Ekainak 26 ostirala

Goizean 10:30-13:30 | Gaztelekuan

Harrotasunez margotzen

Frontoiko eskailerak eta herri eskola parean bi banko ortzadarraren kolorez margotuko dituzte.

Ekainak 27 osteguna

16:00-19:00 | Erriberan

Zarata erakusketa

LGBTIQ+ kolektiboaren inguruan kontzientzia sortzeko erakusketa da. Hamar istorio ezagutu ahal izango dira entzumenaren bidez; hamar aktorek parte hartu dute hor, adibidez, Telmo Irureta zumaiarrak.

Hodei Arrastoaren proiektua da Hiruki Larroxa elkartearekin elkarlanean sortua.

Ekainak 28 ostirala

Goizean 10:30-13:30 | Gaztelekuan

Harrotasunez apaintzen

Gaztelekuko nerabeei Joseba Barandiaran plazako zuhaitzak atonduko dituzte hainbat koloretako giraldekin.

Ekainak 29 larunbata

20:00 | Erriberan

Esnatu naiz kabareta

Andoni Mutiloaren eskutik, antzerkia, dantza eta musika nahastuz hainbat gai zehatzei buruzko hausnarketa eragingo digu: harreman sozialak, generoa, auto-estimua, lotsa eta beldurrak, sexualitatea, sormena, bizipoza... gizartean errotuta dauden hainbat ohitura eta arau zalantzan jartzeaz gain, LGTBIQ+ komunitatearen eskubideen aldeko apustua egiten du kabaretak.



Astigarragako Udala

Foru Enparantza 13
20115 Astigarraga
Tel: 943 335050
udala@astigarraga.eus
www.astigarraga.eus

